

EBAZPENA, Hezkuntza Politiketako Sailburuordearena eta Lanbide Heziketako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan, Lanbide Heziketako ikastetxe Bateratuetan izan ezik, 2026-2027 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duena.

Lanbide Heziketako ikastetxe bateratuen berezitasuna dela-eta, eskola egutegia ezartzeko arau propioak izango dituzte. Horren ondorioz, ebazpen honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Biarren Hezkuntzako Institutuetan eta Ikastetxe Publiko Integraletan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako mailetan 2026-2027 ikasturteko eskola-egutegiak, Oinarrizko Mailako Lanbide Heziketakoak barne, ondoko araei jarraituko die:

1.- Ikastetxe publikoetako irakasle guztiak ikastetxera irailaren 1ean sartuko dira, 2026-2027 ikasturteko hasieraren jarduerak egiteko. Irakas-jarduerak ezingo dira 2026eko irailaren 7a baino lehen hasi. Lanbide-heziketako sistema berria ezartzeagatik, maila horretako eskola-jardueren hasiera aurreko ikasturteekin alderatuta aurreratuko da, baina ikasturtea ezin izango da hasi 2026ko irailaren 3a baino lehen. Lehenengo irakas-eguna 2026-2027 ikasturtearen aurkezpena egiteko erabili ahal izango da.

Beranduen jota ere, 2027ko ekainaren 18an bukatuko dira 2026-2027 ikasturtearen irakas-jarduerak, Azken eskola-eguna eta ekainaren 30era bitarteko epean ondoko lanak burutuko dira: ikasturtea aztertu eta ebaluatzeko berariazko lanak, programazioak, urteko memoria, eta egin beharreko administrazio ekintzak. Uztailean ikastetxeko zuzendaritza-taldeko kideek euren karguen zereginak bete beharko dituzte. Hilabete horretan eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste egun edo aldietan, (abuztuan salbu), zuzendaritza-taldeko kide bat, gutxienez, beti izango da ikastetxean edo berehala ikastetxean izateko moduan.

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan ikasleek 1.050 irakastordu jasoko dituzte gutxienez, 175 irakastegunetan banatuta.

2026eko irailean eta 2027ko ekainean goizez bakarrik eskola guztiak emateko aukera izango da. Gauza bera egin daiteke Gabonetako, Aste Santuko eta Ihauteriko oporraldien aurreko klase-egunetan, gehienez bi arratsalde ikasturte osoan.

Aipatutako egunetan izan ezik, ikasturtean zehar goizez eta arratsaldez emango dira eskolak; baina ikastetxeko Eskola Kontseiluaren botoen gehiengo soiluz onartu ahal izango du asteko arratsalde batean klaseak kentzea, irakaslegoaren prestakuntzarako iharduerak arratsalde horretan egiteko. Jarduera horiek Hezkuntza Sailak sustatutako prestakuntza-planekin lotura izan behar dute, eta proiektuan parte hartzeko deialdian xedatutako baldintzak betetzeko ordutegiaren aldaketa hori beharrezkoa bada.

Gainera, ikastetxeko Eskola Kontseiluak eskola-jarduerarik ez ematea onartu ahal izango du astean bigarren arratsalde batean, eta, ahal dela, irakasleen baterako koordinazio- eta/edo prestakuntza-jardueretara bideratuko da. Horretarako beharrezko izango da 2/3eko gehiengo koalifikatua, Eskola Kontseiluan ordezkaturik dauden hurrengo estamentu bakoitzean: gurasoak, ikasleak eta irakasleak.

Ordutegiaren beste edozein aldaketa egiteko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuetan ikasturtea antolatzeko moduari buruzko Hezkuntza Politiketako sailburuordearen Ebazpenan xedatutako prozedura bete behar izango dute.





Aurreko paragrafoetan ezarritakoaren salbuespen gisa, Hezi+ proiektuan parte hartzen duten ikastetxeek lanaldi jarraituko ordutegian eman ahal izango dituzte eskolak ikasturte osoan, proiektuak berak ezartzen dituen baldintzetan.

Aurreko kasuetatik edozeinetan, eskolarik gabeko arratsaldeak direnak direla, ordutegiak egokitu egin beharko dira, asteko 30 eskola-saio eman ahal izateko.

Klaseak goizez eta arratsaldean ematen diren egunetan, eskola-orduak 6 klasez osaturik egongo dira. Klase bakoitzak ordubete iraungo du eta honela banatuko dira:

- Goizez: 4 klase, bakoitza 60 minutukoa, bi alditan banaturik eta 30 minutuko atsedenaldira bereizirik.

- Arratsaldean: 2 klase, bakoitza 60 minutukoa.

Goizeko eta arratsaldeko lanaldia duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa soilik ematen dutenean, ekaineko eta iraileko lanaldi jarraituko egunetan 6 eskola-saio izango dira, denak iraupen berekoak, eta bakoitzak gutxienez 50 minutuko iraupena izango du. Gainera, atsedenaldira bat edo gehiago izango dira, eta gutxienez 30 minutuko atsedenaldira izango dute.

DBH eta Batxilergoa edo DBH eta Lanbide Heziketa irakasten dituzten ikastetxeek, bi etapetako ordutegiak koordinatu ahal izateko, honako aukera hau izango dute: klase-jardunen iraupena gutxienez 55 minutukoa izan, ikasturte osoan eta klase guztietan, goizeko jarduna dagoenean, ekaineko eta iraileko egunak barnean hartuta, zein goiz eta arratsaldeko jarduneko egunetan.

Edonola ere, ordutegiak doitu beharko dira, astean zenbait arratsalde libre izanik ere, edo klaseetako iraupena edozein izanik ere, tokian tokiko curriculumean aurreikusitako diren irakaskuntzako jardun guztiak bete daitezela, baita ekainean eta irailean ere.

Kasu guztietan, ordutegiak ondoko baldintza hauek bete behar ditu:

- a) Eskolak goizenez goizeko 8:00etan hasiko dira, eta beranduenez goizeko 9:00etan.
- b) Goizeko eta arratsaldeko saioen artean, gutxienez ordubeteko atsedenaldira egon beharko da.
- c) Gehienez, hiru eskola-ordu emango da, jolasgaririk egin gabe.
- d) Jolasgaraien denborak 15 minutuko iraupena izango dute gutxienez. Egun osoan zehar jolasgarai bakarria balego, 30 minutuko iraupena izango luke gutxienez.

3.- Batxilergoko 1. kurtsoan ikasturteak gutxienez 175 irakastegun izango ditu, eta horietatik 160, gutxienez, benetako eskola egunak. Aurkezpena egiteko erabilitako eguna benetako eskola egun horien barruan sartu ahal izango da. 160 egun horietako bakar batean ere ezingo zaio eskola emateari utzi gaituzte gabeko irakasgaiak dituzten ikasleei azterketak egiteko, ezta ebaluazio bilerak, klaustroak eta antzeko jarduerak egiteko ere.

Batxilergoko 1. kurtsoan asteko 34 klase-orduak emateko, asteko lau egunetan 7 klase-ordu emango dira eta beste egunean, berriz, 6 klase-ordu, eta aldeztatik erabakiko da zein egunean zenbat ordu eman. Klase guztiek 55 minutuko iraupena izango dute gutxienez.

Batxilergoko 1. kurtsoan klaseak 2027ko maiatzaren 28an bukatuko dira, 160 benetako eskola egun eman ondoren.

Maiatzaren 31tik ekainaren 18ra bitartean, (biak barne), honako jarduerak hauek egiteari ekingo zaio:



- Ohiko deialdiaren probak eta azken ebaluazioak egitea, notak ematea eta erreklamazioak erabakitzea.
- Ez ohiko deialdiaren probak eta azken ebaluazioak egitea, notak ematea eta erreklamazioak erabakitzea.

Egun horiek ez dira 160 benetako eskola egunen barruan sartuko, baina bai 175 ikasturtearen irakastegunen barruan.

4.- Batxilergoko 2. kurtsoan ikasturteak gutxienez 175 irakastegun izango ditu, eta horietatik 160, gutxienez, benetako eskola egunak. Aurkezpena egiteko erabilitako eguna benetako eskola egun horien barruan sartu ahal izango da. 160 egun horietako bakar batean ere ezingo zaio eskola emateari utzi gainditu gabeko irakasgaiak dituzten ikasleei azterketak egiteko, ezta ebaluazio bilerak, klaustroak eta antzeko jarduerak egiteko ere.

Batxilergoko 2. kurtsoan asteko 33 klase-orduak emateko, asteko bi egunetan 6 klase-ordu emango dira eta beste egun hirutan, berriz, 7 klase-ordu, eta aldez aurretik erabakiko da zein egunean zenbat ordu eman. Klase guztiek 55 minutuko iraupena izango dute gutxienez.

Batxilergoko 2. kurtsoan 2026-2027 ikasturtearen ohiko klaseak 2027ko maiatzaren 14ean bukatuko dira.

Maiatzaren 17tik ekainaren 18ra bitartean, (biak barne), honako jarduera hauek egiteari ekingo zaio:

- Ohiko deialdiaren probak eta azken ebaluazioak egitea, notak ematea eta erreklamazioak erabakitzea.
- USEko azterketa eta ez-ohiko deialdiko probak prestatzeko eskolak ikasleei ematea. Ez-ohiko deialdiko probak prestatzeko eskoletan derrigor hartuko dute parte gainditu ez duten ikasleek, eta gainerakoek nahi badute. Edonola ere, bai eskola horien bidez, bai antolatuko daitezkeen beste eskola edo jarduera alternatiboen bidez, ikastetxeek bermatu egin behar dute Batxilergoko bi mailetako ikasleek benetan, eta gutxienez, 2008ko martxoaren 10ko Aginduak zehazten dituen 160 eskola egun efektiboak izango dituztela.
- Ez ohiko deialdiaren probak eta azken ebaluazioak egitea, notak ematea eta erreklamazioak erabakitzea.

Ohiko eta ez ohiko deialdien probak eta azken ebaluazioak egiteko, notak emateko eta erreklamazioak erabakitzeko erabilitako egunak ez dira 160 benetako eskola egunen barruan sartuko, baina bai 175 ikasturtearen irakastegunen barruan.

5.- Lanbide Heziketako etapan ikasturteak gutxienez 175 irakastegun izango ditu, eta horietatik 165, (33 aste)¹, benetako eskola egunak. Aurkezpena egiteko erabilitako eguna benetako eskola egun horien barruan sartu ahal izango da. Eskola-saio guztiak 60 minutukoak izango dira, salbu Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ordutegiak koordinatzeko dagokion egokitzapena egin behar denean, 7 eskola-saio ematen diren egunetan, edo ikasleekin beste proiektu batzuk egiten direnetan; azken hauetan eskola-saio bakoitzak gutxienez 55 minutuko

¹ 2000 ordutik beherako Lanbide Heziketako heziketa-zikloen kasuan ere lehenengo ikasturteak gutxienez 165 benetako eskola egun izango ditu. Bigarren ikasturtean egutegia ezarriko da heziketa-ziklo bakoitzaren iraupena kontuan hartuta; halaber, bermatuko da curriculumak zehazten duen arauak zehazten duen ordu-kopurua ikasle guztiei ematea.



iraupena izan dezake. 165 egun horietako bakar batean ere ezingo zaio eskola emateari utzi azterketak egiteko, ezta ebaluazio bilerak, klaustroak eta antzeko jarduerak egiteko ere.

Nolanahi ere, probak, erreklamazioak egitea eta notak ematea:

- A. A, B eta C graduak:
Amaitu ondoren, eta beranduenez, ekainaren 25an.
- B. D graduak (LOE Zikloak):
 - a) 1. ikasturteko 1. amaierako ebaluazioa
 - b) 2. ikasturteko 1. amaierako ebaluazioa
- C. D graduak (LOGSE Zikloak):
 - a) 1. ikasturteko amaierako ohiko ebaluazioa
 - b) Zikloko ohiko amaierako ebaluazioa
- D. E graduak (Espezializazio kurtsoak):
 - a) 1. amaierako ohiko ebaluazioa

beranduen jota ere, ekainaren 4an burutuko da.

Probak, erreklamazioak egitea eta notak ematea honako hauetan ere:

- A. D graduak (LOE Zikloak):
 - a) 1. ikasturteko 2. amaierako ebaluazioa
 - b) 2. ikasturteko 2. amaierako ebaluazioa
- B. D graduak (LOGSE Zikloak):
 - a) 1. ikasturteko amaierako ezohiko ebaluazioa
 - b) Zikloko ezohiko amaierako ebaluazioa
- C. E graduak (Espezializazio kurtsoak):
 - a) 2. ikasturteko amaierako ebaluazioa

beranduen jota ere, ekainaren 25ean burutuko da.

C, B eta A mailetako probak amaitu ondoren egingo dira, ikasturte bakoitzeko deialdi bat izango dute B eta A mailetako probek, eta bi deialditako C mailakoek.

Txandakako erregimenean eskainitako prestakuntza dualeko planetan ikasten dutenen jardueraren egutegia dagokion dokumentuak, kontratuak edo akordioak ezarritakoari lotuko zaio; dokumentu, kontratu edo akordiook planen oinarria dira eta erregelamenduz daude onartuta.

Ebazpen honetan arautzen ez diren alderdiei dagokienez, Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak Lanbide Heziketako Ikastetxe Bateratuentzat ezartzen dituen jarraibideetan adierazitakoa hartuko da erreferentziatzat.

6. Hezkuntza-maila bakoitzaren azken ikasturtea amaitzeko egutegia finkatzerakoan, kontuan hartu beharko dira ondorengo irakaskuntzetara sartzeko prozeduretarako ezarri diren datak, ikasleek prozedura horietan parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko

7. Ezinbesteko kasuren batengatik eskola ordu kopurua murriztuz gero, egutegia egokitu egingo da, ezarritako eskola egunak ematea lortzeko, beti ere langileen lan eskubideak errespetatuz.



Nahiz eta ikasleek –banaka zein taldeka- parte ez hartu, ikastetxeek eskolak eman egingo dituzte, ordutegi ofiziala errespetatuz.

Egutegia egokitu behar izanez gero, hasierako prozedura –egutegia finkatzeko erabilitakoa- bera erabiliko da, eta hori ez badu gobernu organo eskudunak egiten, Hezkuntzako Ikuskaritzak eskatuko du egutegia egoki dezaten. Eskaera horri erantzun ezean, Hezkuntzako Ikuskaritzak egokitu du egutegia eta ikastetxeari jakinaraziko dio.

8.- Eskola-egutegia egiteko, dagokion urteko Autonomia Erkidegoko lanegunetako jaiegunen egutegi ofizialaren arabera jaiegun izaera dutenak izango dira jaiegunak, baita herri edo dagokien lurraldeko zaindarien jaiegunak ere. Edonola ere ezin izango da jaiegun hauetakoren bat eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

Ikastetxeek, nahi izanez gero, jaieguntzat hartu ahal izango dute maila jakin bateko zaindariaren eguna, dagokion egunean zein aukeratzen duten ordezkaturako beste egun batean ospatuz. Halaber, nahi izanez gero, ikastetxean irakasten diren maila ezberdinen zaindarien jaieguna egun bakar batean ospatu ahal izango dute. Edonola ere ezin izango da jaiegun hori eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

9.- Eguberriak oporraldiak 2026ko abenduaren 24tik, 2027ko urtarrilaren 6ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, azken hau barne.

Aste Santuko oporraldiak, 2027ko martxoaren 25etik 29ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

10.- Eskola egutegiaren proposamena tramitzeko 2008ko martxoaren 10ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduko 9. atalean ezarritakoari jarraituko zaio, (2008ko apirilaren 25eko EHAA).

Egutegi proposamena ikastetxeko Eskola Kontseiluak egingo du, baina ikastetxeren batean organo hori osatu gabe badago, irakasleen klaustroak egingo du egutegi proposamena.

2026ko ekainaren 1era arte baino lehen, ikastetxeetako zuzendariak Hezkuntza Sailak horretarako espresuki diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz hurrengo ikasturteko eskola-egutegiaren proposamena egingo dute, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dizkien argibideak jarraituz. Ikastetxeek aplikazio horretan ikastetxeko Eskola Kontseiluak eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen data adieraziko dute. Organo horrek eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen bilkurako akta ikastetxean bertan artxibatuko da eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura izango da.

Zenbait ikastetxek, garraioa edo jangela konpartitzen dituztenek, egutegi proposamen bakarra eta berdina egingo dute, inplikaturiko ikastetxe guztietako Eskola Kontseiluek onartuta. Era berean, Ikastetxe Publiko Integratuetan ahaleginak egingo dira asteko egutegiaren banaketak irakasle guztiak bat etor daitezen, koordinazio- eta prestakuntza-saio bateratuak egin ahal izateko.

11.- Ikastetxeren batek, finkaturako epealdiaren barruan beren eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez bada, dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkariek egindakoa onartu behar izango du.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.



Lucia Torrealday Berrueco
HEZKUNTZA POLITIKETAKO
SAILBURUORDEA

Jon Mirena Labaka Intxauspe
LANBIDE HEZIKETAKO
SAILBURUORDEA